

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



 **EAJ**
Aitor Esteban Bravo
atsegin dut 

MARIBEL VAQUERO Bilbo, 2023ko uztailaren 6an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Gabon guztioi.

Bai Aitorrek, bai Mikelek esan bezala, hauteskunde kanpainaren hasiera honetan galdera bati erantzun beharko diogu; eta galdera ez da "Sanchez edo Feijóoren artean zein den hautua?". Ez, Euskadin.

Uztailaren 23an, gipuzkoarrok, bizkaitarrak, arabarrak eta nafarrak, hemen, Euskadin, bizi garenon interesak, nahiak, identitatea, instituzioak eta autogobernuaren defentsa nork egingo duen erabaki beharko dugu. Hau da, Euskadiren ahotsa Madrilen nork izango duen erabaki behar dugu.

Eta zarataren eta mezu populisten artean zaila izango bada ere, gure ahotsa entzun dadin lortuko dugu!

Sinistuta gaudelako badirela EAJri botoa emateko hamaika arrazoi:

- Alderdi abertzalea gara, politika abertzalea egiten duena; hemen Euskadin, Europan eta Madrilen, ordezkaritza dugun leku guztietan. Euskadi delako gure abiapuntua eta helmuga.
- Politika demokratikoa egiten duen alderdia garelako, errespetutik, elkarrizketan eta akordioan oinarritutako politika egiten dugu. Gure ADNan dagoen egiteko modua delako.

Ez dugu inboluzio demokratikorik onartuko, ez. Eta eskubide zibil eta politikoen defentsa sutsua egingo dugu.

Gaur ere ezagutu dugu Auzitegi Konstituzionalak Euskadiko Toki Erakundearen Legearen artikulua bat bertan behera utzi duela, euskaldunen hizkuntza eskubideen kontra. Voxek eskatutakoari kasu eginez. Aurrean izango gaituzte.

- Gure ahotsa zuzeneko delako, hauteskunde lemak dioten bezala "con voz propia", hau da, bitartekaririk gabekoa. Guk ez baitugu motxilarik, guk ez baitugu besteekiko dependentziarik, gurea soilik Euskadiren eta bere herritarren nahien eta interesen defentsa delako.

- Sinesgarritasuna dugulako. Urteetako bermea dugu, ez gara etorri berriak. Nahiz eta pertsonak aldatu euskal taldea Madrilen politika demokratikoa, sinesgarria, egingarria, populismorik gabekoa egin du beti eta egingo du etorkizunean ere. Gu Madrileren joan-etorrian gabiltzalako, gure egitekoa Euskadin hasi eta amaitzen delako.

Euskadiren interesak defendatzen jarraitzeko, euskal talde indartsu bat behar dugu. Zuen konfiantzak eta gure konpromisoak batera posible egin ahal izango du etorkizunean ere EAJk Euskadiren Ahotsa izaten jarraitzea.

Asko dugu jokoan, Euskadiren ongizatearen zutabe den autogobernua dago jokoan, eta defentsa hori egiteko, Euzko Alderdi Jeltzalea izan da eta da aukera bakarra.

Votar al PNV significa hacer una apuesta por nuestra identidad nacional, la vasca, por una defensa férrea del Autogobierno, por nuestras instituciones, y por el bienestar de nuestra ciudadanía. Significa justicia social, significa cohesión social.

Nos presentamos a estas elecciones con el aval del trabajo realizado por el Grupo Vasco durante décadas, en la defensa de las instituciones y del autogobierno, que ha contribuido a que Euskadi sea hoy lo que es, que Euskadi tenga el nivel de bienestar social y económico que tiene.

Garai zailak datoz, ziurgabetasun handia dago, eta Aitorrek esan bezala, gu gara " Beti distiratsu, gidari, mantentzen den izarra".

Horregatik, uztailaren 23an, Euskadik ahots propioa izan dezan, zure aukera, aukera bakarra Euzko Alderdi Jeltzalea da!!

Gora Euskadi Askatuta!!